


Astekaria



elgoi



**Bizitzaren
onenean**

IRAKASLE

ELKARTEA

ZEZENBIDE

San Frantzisko 43 • ☎ 74 27 20 • ELGOIBAR



auto-eskola

*izena ematean
%10eko beherapena
Gazte Txartelarekin*



Martxoaren 19a SAN JOSE EGUNA

Elgoibarrik irten gabe Aitari oparitzeko 20 ideia

1. AGENDA ELEKTRONIKOA
(14.000 pta.)
MEKANOSA



2. ALKANDORA ETA GORBATA (6.105 pta.)
JON Sastreria



3. AMANTALA
(3.200 pta.)
KARKIZANO
Mertzeria



4. ARDO BOTILA
(1.720 pta.)
DONA
MERCEDES



5. BIZARRA KENTZEKO TRESNERIA
(5.300 pta.)
BAZAR
DESDE
CIEN



7. KARTERA ETA LLABEROA (5.000 pta.)
ASTIGARRAGA Kirolak



8. KOLONIA (6.200 pta.)
APRAIZ Lurrindenda



9. COMPACT DISK APARAILUA (19.900 pta.)
LEIZABE elektragailuak



10. COMPACT DISKOA
(2.950 pta.) PITXINTXU



11. COGNAC KOPA
(975 pta.) BETI ARGÍ
Elektragintza



12. LIBURUA
(1.700 pta.)
GOROSTIZA
Liburudenda




13. ARGAZKI MARKOA
(1.500 pta.)
AZKUE
Argazki
Denda



14. PIXAMA (5.800 pta.)
ECENARRO Mertzeria



15. PURUAK (1.160 pta.)
GARATE estankoa



16. TALADROA
(9.995 pta.)
ETXABE ferreteria



17. IDAZTEKO LUMA
(5.250 pta.)
CALCULMECANO



18. TELEFONO MOBILA
(30.000 pta.)
EIBARTEL
(olaso
industrialdea)



19. TXANDALA
(14.900 pta.)
IRIONDO
kirolak



20. GERRIKOA
(2.400 pta.)
OSORO zapatadenda



ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

PUBLIZITATEA:

Myriam Aldazabal.

MAKETATZAILEA:

Maite Rementeria.

ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martin,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldegi, Xabier Ansola, Nekane Aranburu, Pello Arrieta, Ina Garagarza, Ane Goikoetxea, Amaia Gorostiza, Maite Iriondo, Edu Iriondo, Alberto Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León, Juan Mari Mendizabal, Milagros Oiarzabal, Benantzio Otaegi, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta, Deñe Zabaló, Lucia Zubiaurre.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.600 ale

LEGE GORDAILUA: SS-
1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



kutxa fundazioa
fundación kutxa



Laranja osoa

Udaberrira inguratzen goazen heinean iritsi zaigu martxoaren 8a, Emakumearen Eguna, mota ezberdineko ekitaldi ugari eginez ospatuko den eguna. Urtean behineko ospakizun hauek ez dute garrantzi gehiegirik funtsezko aldaketak lortzeko bidean, baina gogoetarako une egokia gerta daiteke denontzat.

Egunean-egunean burutu beharreko bakarlanarekin lortu beharko da aspaldi abiatu ginen berdintasunaren bidean aurrerapausoak ematea, nahiz eta talde-lanari ere bere garrantzia eman behar zaion, badirelako bakarka lortu ezin diren gauzak. Esan daiteke talde-lana gauza zehatzak lortzeko dela, baina bakarlana izango dela pertsona bere osotasunera eramango duena.

Pausoak eman direla ezin ukatu, mota askotako lanpostuetan sartzeari lortu du emakumeak nahiz eta askotan lanpostu berdinean gutxiago irabazi edo garrantzizko lanpostuetan sartzeari zaila izan. Nolanahi ere normalizazioa oraindik urruti dagoela dirudi, gizarte baten ohiturak ez dira egun batetik bestera aldatzen eta ez dago dudarik honetan ere luze joango dena.

Gaurko gazte gehienak ikasketa munduan dabilta neska edo mutila diren kontuan izan gabe. Beraz, belaunaldi berriek lan mundurako

aukera berdina izango dituzte. Horrek esan nahi du aukera berdineko gizon-emakumeak izango direla, horretan gutxienez berdinak direla. Hala ere, bada gehitu beharreko beste atal bat: familiaren garrantzia. Neska-mutilek familian ikasi beharko dute berdintasunerako bidea, neska edo mutila izanik pertsona direla jabetuz, aukera eta eginbehar berdinak dituztela konturaturaz, pertsona osoa izatearen garrantzia aurkituz...

Honen haritik lehenago astean telebistan ikusi nuenak harritu ninduela aitortu behar dut. 12-13 urteko neska-mutilak ziren matxismoari buruz solasean. Mutil gehienak (etxean horrela hezitzen zituztenak, eurek ziotenez) matxismoa defenditzen zuten, "orain arte horrela izan bada zergatik ez berdin jarraitu?" esaten zuten, neskak eta beste mutil batzuek berdintasunaren oinarritutako bizimolde baten alde arazoitzen zuten bitartean.

Harritu ninduen mutil haien matxismoaren aldeko jarrera izan zen, baina bestalde, arazoia dudala baieztatzen didate familiako heziketa garrantzitsua dela aipatzen dudanean.

Han esandakoarekin gelditzen naiz, laranja osoa izaten saiatu behar dela eta ez laranja erdia.

Ane Goikoetxea

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

Zergatik ixten dute Kiroldegiko igerilekua eguerdian?

Gerentearekin egon gara eta berak esan digunez, duela bost urte azterketa bat egin zuten eguerdian (13:00-16:00) jenderik ibiltzen zen ala ez ikusteko. Ondorioak oso argiak izan ziren: ordutegi horretan ez zen jenderik ibiltzen eta horregatik erabaki zuten itxita edukitzea.



KEXAK

Azkarateko baserritar batek deitu digu elurteetan Elgoibartik Azkaratera doan bide zaharra ahaztuta izan dutela salatzen. Bide berria egunero garbitzen zuten bitartean, zaharra ez omen zuten azken egunera arte garbitu.



TXALOAK

Emakume batek deitu digu altzari zaharren birziklaia ikastaroa prestatu eta ikasten ari direnak txalotzeko. Benetan ideia interesgarria iruditzen zaio eta egin behar duten erakusketara joatera animatu nahi ditu elgoibartarrak.

“Kalean bere txakurrak utzi zuen “oparitxo” kilnex batekin jasotzen ikusi genuen gizona txalotu nahi dugu eta beste batzuk ere berdina egitera animatu nahi ditugu.”

ESKUTITZAK

Seme-alaben heziketa aitarena eta amarena da

Berdintasuna (norberarengandik) hasten da, pertsona bezala. Beraiek (gizonezkoak) baino gutxiago ez garela sentitu behar dugu, gure lana eguneroko borrokan eta borroka kolektiboan ere baloratua izan dadin”.

Guraso Eskolak martxan daramatzen hiru urte hauetan parte hartu dutenen artetik %95 emakumeak izan dira, %5a gizonezkoak. Zergatik desberdintasun hau? Gure ustetan gizonezkoek (aitek) emakumeengan delegatzen dute seme-alaben heziketa. Errealitate honek askotan biziro zamutzen gaitu eta era berean arduradun bakarrak izango bagina bezala sentiarazten gaitu. Seme-alaben heziketak bien zeregina izan behar du, aitarena eta amarena; gure seme-alabek koherenteak, maitagarriak eta inplikaturako aita eta ama eskatzen baitute.

Guraso Eskola

Alkoholik gabeko diskoteka

Kaixo, 7. mailako neska talde bat gara. Proposamen bat egin nahi dugu:

Larunbat eta igandeetan asko aspertzen gara kalean bueltaka eta 16 urtetik beherakoentzat diskoteka bat jartzea nahi genuke, baina alkoholik gabekoa. Gu bezala pentsatzen duten neska-mutil gehiago dagoenez, Udalari zerbait egin dezan eskatu nahi diogu. Lehenago ere egon dira horrelako esperientziak baina itxi egin zuten. Badakigu leku itxi bat kalean topatzea ez dela erraza, baina taberna zuloetan egotea baino hobeto izango da. Esfortzu bat eginez agian zerbait polita egin daiteke. Gu behintzat joateko prest gaude.

I.N.S.

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Mila bederatzehun eta hogeigarren urte inguruan ateratako argazki hau **Kontxa Azkuek** lagatakoa da. Erretratu klinika zaharreko ortuetan omen dago aterata eta, Kontxak esan digunez, bertan agertzen ziren neskak kuestazioa egiten ari omen ziren Gurutze Gorriaren alde.

Hona hemen erretratuan agertzen diren nesken

izen-abizenak: Goitik behera, ezkerretik hasita: **Gregoria Lopez "Sastrillo"** (†), ezezaguna, **Maria Barrenetxea** (†), **Cari De la Cruz** (Aristrainen emaztea) (†), **Irene Etxaniz** (†), **Rosa De la Cruz** (†) eta ezezaguna.

Erdian, ezkerretik: ezezaguna, **Josefa Arce**, **Josefina Uria** (†), **Teodora Gurrutxaga** (†) eta **Anita Arce** (†).

Lurrean eserita: **Cristina Belmonte** (†), **Carmen Arriola** (†), **Luisa Abascal** (†) eta ezezaguna.

Familiakoren bat edo lagunuen bat hiltzen bazaizu, BARRENEk sentimenduan lagundu eta eskelak, urteurrenak edo esker onak azaltzeko toki bat eskaintzen dizu.



Bakarrik eta sekula baziño hobeto

Itziar, Tere, Itziar eta Miren. 70 urtetik gora dute laurak. Eta denak bakarrik bizi dira. Beren etxe propioa dute, soldatxoa bat eta, aitortu digutenez, orain baino hobeto ez dira sekula bizi izan. Gaur, martxoak 8, Emakumearen Nazioarteko Eguna da. Gaia aitzakitza hartuz, gure artera ekarri ditugu emakume hauek eta berriketan,

batak besteari txanda kenduz, beraien bizipenak kontatu dizkigute.

Adina esateko oztoporik ez dute jarri. 71 urte dituzte Itziar Ajuriak eta Itziar Kondek, 73 Terek eta 72 Mirenek. Itziar Ajuriak gaineratu duenez, “80 urtetik aurrera, gehixao dakazula esatia ere gus-tatzen da, harro gainera”. Gai apro-posita izan da guztien mingaina berotzeko. Hortik abiatu eta gai-nontzeko guztia arrapaladan etorri da, segida-segi-dan, arnasa hart-zeko ia astirik izan gabe.

Bakarrik bizitzera ohitu behar

Guraso eta anai-arrebekin bizi izan dira beti laurak. Halere, urteak joan urteak etorri, anai-arrebak ezkondu edo alde egin eta gurasoak hil egin zitzaizkien. Horrela, beti norbaitekin bizi izaten ohituta egote-tik, bakarrik ere eroso egoten ikasi behar izan zuten. 13 eta 25 urte bitartean darama-te bakoitzak bere etxean, “eta sekula baino pozixoa bizi gera”.

Gurasoen menpe bizi zirela aitortu dute, “ezkondutakuan



bakarrik eitxen zan alde etxetik!”, adierazi du Terek. Amaren eragina oso indartsua izan da lau emakume hauen bizitzan. Itziar Ajuriak komentatu digunez, “nere amari kolore horixa gustatzen jakon. Zeozer erosi nahi banaban, horixa bazan libre nakan, bestela ez. Eta nik, klaro, nahixao horixa eukitzia ezer ez eukitzia baino”.

Soldata etxera

Oso gazte hasi ziren lanean, 14 urte ingururekin. Itziar biak irakas-kuntzan aritu ziren, kondetarra baita familiak zuen tabernan ere. Terek tindategia izan zuen urte askoan eta Miren telarrean aritu zen lehenik eta jostun bezala ondoren, “oin emakumiak danian eitxen debe lan. Lehen, zerbitzera edo Telarrera jutia eta jostia, beste aukerarik ez zauan”, kontau digu I. Ajuriak. Halere, Mirenek esan digunez, “gure epokan gurasuei ematen jakuen oso-osorik soldatia”. Gogoa dute bidaiak egiteko orduan ere baimena eskatu behar izaten zutela. I. Ajuriari gurasoek esan zioten, beraiek bizi ziren artean etxean behar zuela egon. Haiek hil eta gero izango zuen aukera nahi zuena egiteko.

Oinezkorik nahi ez, zaldizkorik etorri ez

Neskazaharrak dira guztiak, “solterak” eurak esaten duten bezala. “esaeriak esaten dau, oinezkorik nahi ez eta zaldizkorik etorri ez”, adierazi digu Terek. Itziar Kondek umetan esaten zuen ez zela ezkonduko, “merzeria bat ipini eta ez nitzala ezkonduko esaten naban”. Emakume hauen garaian dena pekatua omen zen, “mutil batekin



Miren Arrieta



Tere Alberdi



Itziar Konde



Itziar Ajuria

dantza ein eta berak pentsamentu txar bat bazakan ere, guria zan pekatua”, esan digu Terek. Alde batetik, ezkondu eta umeak izateko hezitu zituzten baina, era berean, “emakumia ez zan lanzatzen. Gizonak eman bihar zaban lehenengo pausua. Oin diferentia da”, argitu du I. Kondek. Halere, Mirenen ustetan, “beste andrak gure edukazio berdina izan zebe baina ezkondu zian. Guri gustokorik ez jakun tokatu eta kitto”.

18 urtekin denak politikak

Presumidak direla aitortu dute guztiek, “18 urtekin danak dia politxak, gu guapak ipini bihar gera! “ azaldu du Terek. Mirenek esan duenez, “espilura begiratu eta ondo ikustia inportantia da. Bizitzan ilusiuak euki bihar dia”. Halere, gaur egun duten bizitzan ez dute gizon bat inondik inora ikusten, “ez eta pentsatu ere! Momentu honetan traba izango litzake, besterik ez!”. Osasuna duten bitartean beste ezreren beharrik ez dute, “inori konturik eman gabe bizi gera. Independentzia dakagu oin eta hori galtzerik ez dou nahi”, adierazi du Mirenek. Hori bai, Itziar Kondek gizonik ez zuen nahi bizi izateko “baina umetxo bat bai. Lehen ez zauan oin bezela inseminaziorik eta, ezin! “. Alde txarrik ere izango du bakarrik bizitzeak baina emakume hauek alde ona begiratzen dute, “positiboa begiratu bihar da. Ondokuei begira egongo bagina akaso trabak topaiko genduzen eta”, jarraitu du Mirenek.

Gauzez berandu, goizez ere bai

Bakardadearen beldurrik ez dute, “egunen batian triste samar

Berriz jaio ezkerro emakumea ala gizona izan nahi zenuke?



MARIVI UNZUETA
66 urte, etxeandrea

Gizonezkoa uste dut, gu baino askoz hobeto bizi dira. Gauzak aldatu egin dira, gazteen artean batez ere baina, oraindik ere, gizonezkoak, batzuk behintzat, hobeto bizi dira.



J. ENRIQUE BARRENETXEA
48 urte, langabetua

Gizonezkoa, noski. Ez pentsa hobeto bizi garenik nahiz eta abantaila gehiago ditugun gizarte matxistata batean bizi garelako. Lan munduan, adibidez, gauzak berdintsu daude.



ROSARIO MORENO
41 urte, etxeandrea

Emakumea, dudarik gabe. Bat edo beste izan, abantailak berdina dira, bizitzan moldatzen jakitea da kontua. Matxismo piskat dagoen arren, emakumea liberalagoa da orain.



ANGEL CONDE
35 urte, fresadorea

Gizonezkoa. Badakit zer den gizon izatea eta ez nuke aldatuko, ondo bizi naiz. Gizarte honetan abantaila gehiago ditugonak, ez kasu guztietan baina bai orokorrean.



NOEMI SOLOZABAL
20 urte, dendaria

Emakumea. Zenbat eta gehiago izan, orduan eta elkartasun gehiago. Txistek dioen bezala "orri zuriak dituen liburua irakurtzen ari den emakumea, bere eskubiak irakurtzen dago".



JOSEBA QUINTAS
6 urte, ikaslea

Mutila, Power Rangers-etara jolasteko. Nere gelako neska batzuk ez dakite jolasten. Neskak eta mutilak berdina gara baina batzuk piskat tontoagoak dira.

**KAROBI
PUB**

ELGOIBAR

Tel. 74 06 37
San Frantzisko, 37

GAZTELU

Mota guztietako

Ezkontza soinekoak
berriak eta bigarren eskukoak
50 modelo baino gehiago

Zatoz konpromezurik gabe! Legarre behea, 9 - Tel. 10 81 59 -

Fotografia

SOARTE
PUBLIZITATEA

KATALOGO
de IMPRIMAKI
INDUSTRIALAK

EZKONTZAK

JAUNARTZEAK

ERREPORTAJAK

ZERBITZU PROFESIONALA

TEL.-FAXA (943) 74 20 21 · Santa klara 12 · ELGOIBAR

Amagoia
Ruiz de

Josu
Guenetxea

Eduardo
Sanz

Mikel
Cornejo

Marijo
Astigarraga

Migel
Arozena

Iñigo Otaño

Asier
Zengotita

Jon Uriguen

Ana Isabel
Loiola

Myriam
Aldazabal

Elena Barua
Edurne

Leire
Martin

Nekane
Etxaniz

Valentin
Aizpitarte

Edurne
Bilbao

Bilbao

1.000

ELGOIBARKO IZARRA Elkartearen BAZKIDE KANPAINA

M. Karmen
Manzisor

Silbia
Urigoitia

Bixente
Alonso

Amaia
Leiaristi

Jose Mari
Kortaberria

Lorea
San Martin

Patxi Larrea

Juanjo
Galdos

Imanol
Ulibarri

Arkaitz
Balzola

Jon Kurutz
Sasiain

Igor

Miren
Vallejo

Xabier
Gorostiza

Lurdes
Odria

Antton
Iriondo

Izaskun
Estibariz

Oihana

Gema

Arantza
Opakua

Roberto
Martin

Eider
Mujika

Elsa
Sanchez

1.000 esker

Ibon
Bastida

Erroka
Castrillejo

Ibon Arriola

Mikel
Artola

Maier
Gurrutxaga

Zigor
Esnaola

Danel
Bastida

Jon Eugi

Juan Mari
Uranga

Oier
Balzola

Garbiñe
Gorstiaga

Ane Iriondo

Onintza

Lordi
Txurruka

Jose
Alberto

54 bazkide berri



Zuk ere bazkide izan nahi baduzu

DEITU ☎ 74 16 26

■ Sallobente errekan arrantzatzeko baimenak

Hilaren 16tik uztailaren 28ra bitartean luzatuko denez arrantzan egiteko baimena, La Unión elkarteak hilaren 12an egingo du egoitzan bertan iluntzeko 8etan arrantza baimenen zozketa. Egun bakoitzeko eta arrantzale bakoitzeko prezioa 400 pta.koa izango da, Gipuzkoako Federazioaren lizentzia eta Gipuzkoako Arrantza Elkarteren bateko kidea izanez gero. Federatu gabekoak eta Gipuzkoan bizi direnentzako kuota 1.800 pta.koa da eta federatu gabeko kanpotarrentzat, berriz, 2.000 pta.koa.

■ Eskolarteko judo txapelketako emaitzak

Ibai Klubeko alebin eta infantil mailako bederatzik judoek eta benjaminetako beste bederatzik hartu zuten parte iragan zapatuan Gipuzkoako Eskolarteko txapelketaren hirugarren fasean. Alebinetan Maialen Morak urrea lortu zuen eta Aitor Gabilondok eta Javi Muñozek zilarra. Infantiletan Egoitz Mora eta Ganix Ostolazak urrezko domina irabazi zuten. Zilarrezkoa Xabi González, Josu Idiakez eta Zuhaitz Azpiazurentzat izan zen eta brontzea Esther Idiakezentzat.

■ Odol ateraldia

Datorren ostiralean, hilak 15, odola ateratzeko deia luzatu da elgoibartarren artean arratsaldeko 6,30etatik 8,30etara bitartean Pedro Migel Urruzuno 8ko egoitzan. Aurrez deitutako guztiei bai eta odola emateko prest daudenei ere, lekura ager daitezen eskatzen zaie.

■ Bandaren kontzertua

Bandak ohiko kalejira eta kontzertua eskainiko ditu igandean, hilak 10. Jose Antonio Osorok zuzenduta bost pieza joko dituzte eguerdiko 12,30etan hasiko den saioan.



Gemma Monreal margolari elgoibartarrak hogeita hamar koadroz osatutako margo bilduma erakusgai izango du Kultur Etxean gaurtik hasita, hilak 8, datorren 24ra arte. Emakume honen margoari buruzko kritika guztiek bere indarra, argitasuna eta, paisaia eta etxeen edertasuna azpimarratzen dute. Gemmaren hitzetan “galtzen doan guztia, herriskak, etxetzarrak... beti agertzen dira hor, poliki-poliki lientzoak testuraz, kolorez eta formaz betetzen joaten naizelarik”. 30 margoen artean Elgoibarko txokoak, Soria, Santander, Huesca, Cazorla eta beste zenbait paisaia azaltzen dira. Euskal Herrian ezezik, Estatuan ere egin ditu erakusketak eta lehiaketa eta bienaletan ere hartu izan du parte.

■ Jaietako egitaraua antolatzeke bilera

Udal Kultur Zerbitzuak Trinitate eta San Bartolome jaietako egitarauak prestatzeko bigarren bilerarako deialdia zabaldu du larunbaterako, hilak 9. Joan den larunbatean izan zen lehen bilera Kultur Etxean, eta herriko 10 lagun baino ez ziren bildu. Bilera eguerdiko 12etan hasiko da Kultur Etxean.

■ Mapfre bekak

Mapfre Fundazioak urtero ezinduentzako ematen dituen lanbide heziketarako beken deialdia egin du 1996-97rako. Helburua, ezindu fisikoak heziketa profesionalaren bidez lan munduan integratzea da. Informazio gehiago nahi duenak Ongizate Sailera jo dezake aurrez 74 10 08ra deituz.

■ Alkatearen salaketa Javi Agirreraren kontra

Gillermo Garate alkateak prentsaurrekoan adierazi zuenez, Javi Agirre Egin egunkariko berriematea eta HBko zinegotzia den heinean, “egunkariko kronikak PNVren aurkako salaketak egin eta gezurrak esateko erabiltzen ditu”. Bi artikulu-tan Javi Agirrek zioen PNVk D eredu-baztertu eta Santa Klarako saneamendu plana aintzakotzat ez duela hartzen. Era berean Mintxetako konponketa lanei buruzko informazioa ezkutatzea egotzi zion Agirrek alkateari beste artikulu batean. Garateren hitzetan “gezurra da Agirrek bere kroniketan PNVri buruz dioena eta jokabide horrek argi uzten du HBren inkapazitatea”. Era berean, “iruzur elektoralak” egiten dihardutela gaineratu zuen Garatek, “ez baitira batzordeetara joaten eta ondorioz ez dituzte euren interesak defendatzen, hau da, hautesleen interesak”.



Gero eta haur gutxiago daude herriko eskoletako geletan

Udal Euskara Zerbitzuak emandako datuen arabera, 96-97 ikasurterako aurrematrikulazio kopurua 62 haurrekoa da. Hiru urte dituzten haurrak hiru ikastetxe ezberdinetan matrikulatu ahal izango dituzte gurasoek: Ikastola, Herri Eskola eta Pilar. Udal Euskara Zerbitzuak otsailean amaitu zen aurrematrikulazioari buruz dituen datuen arabera, 30 haur dira Ikastolan izena eman dutenak, 13 Herri Eskolan eta 19 Pilarrean. Azken urteotako jaiotza tasari begiratuta, duela hiru urte jaiotzek behera egin zuten; hortaz, iaz baino haur gutxiago daude ikastetxeen artean

banatzeko. Iaz 93 eskolaume zeuden eta, aurten, 62 baino ez.

Ikasturtez ikasturte datuak aztertuz, 91-92an, hiru urteko 88 haur aurrematrikulatu ziren gure herriko ikastetxeetan. 92-93 ikasturtean 74 izan ziren; hurrengo ikasturtean 66; duela bi urte 77koa zen haur kopurua eta iaz 93 izan ziren. Iaz haur kopuruak gora egin bazuen ere zertxobait, aurten berriz beherantz egin du. Udal Euskara Zerbitzuaren datuen arabera, datorren urtean hiru urterekin matrikulatuko diren haurrak aurten baino gehiago izango dira.



Palestinatik ekarritako

postala dugu irudikoa. Miren Arrietak ekarri zuen BARRENEko erredakziora eta esan zigunez, bere lagun batek utzitakoa da. Dirudienez, laguna Palestinan izan zen oporretan eta eliza batera sartzean, Gure Aita 84 hizkuntza ezberdinetan idatzita ikusi zuen, baita euskaraz ere. Bitxia eta pozgarria iruditu zitzaion Palestinaraino joan eta bertan, gure herriko hizkuntza japoniarra, esperantoa, hebreoa, thailandesa, lituanoa eta beste hainbat hizkuntzaren artean ikustea.

Autobusa Ertzantzaren aldeko manifestaziorako

Elgoibarko EAJ alderdiak bihar, larunbata, hilak 9, Donostian izango den manifestaziorako autobusa antolatu du. Manifestazioa Ertzantzaren aldekoa da eta sindikatuak dira antolatzaileak. Joatea nahi duenak Batzokiko 74 27 44 zenbakira dei dezake.

Zazpikiren zozketa

Zazpiki irriariaren zozketan 733 zenbakia atera da saritua. Jabeak 74 34 74 zenbakira dei dezake irratikoekin harremanetan jartzeko. Sarituak compact disc-a duen minikatea jasoko du edo hala nahi izanez gero, haren balioa dirutan, 25.000 pta.

Tanttakaren antzerkia

Gaur, hilak 8, Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna ospatzen denez, Elgoibarko Udalak antzerkia antolatu du Herriko Antzokian. Tanttaka taldearen "Denak Errudun" lanak amaizatearen gora-beherak azalduko ditu umorea eta ironia nahastuz. Saioa gaueko 22,30etan hasiko da. Sarrera 500 pta.koa da eta 300 pta. Gazte Txartela dutenentzat.

Leku-Ederreko garajeak Santa Klarakoen erabilerarako

San Migeleko errekaostoen lanek irauten duten bitartean Santa Klarako auzotarrek Leku-Ederreko garajeak erabili ahal izango dituzte ibilgailuak gordetzeko Udalaren erabakiz. Errekaostoen ildo aldatea da lanen zioa, eta 15 hilabetez luza daitekeela aurrizkusten du Udalak. San Migeleko errekaosta pabilioi industrialen azpitik igarotzen da gaur egun eta asmoa errepide azpian ildo berria egitea da. Hortaz, aparkalekuak murriztuko direnez, hala eskatzen duenak Leku-Ederren gorde ahal izango du autoa.

Mari Jose San Millan:

“Koadroak enkarguz egitetik asko ikasten da”

50 urte ditu Mari Jose San Millanek eta oso txikia zela hasi zen margotzen. Koadroak egitetik ere bizi izan zen urte batzuek Madrilen zegoela eta gaur egun ofizioa ez den arren, egunero ematen du tartetxo bat garajea sartu eta margotzen.

Paisaia edo bestelakoei diapositibak atera eta haiek proiektatuz, pintzela eskuan hartu eta begi aurrean duena isladatzen hasten da lientzoan... Beste gauza askoren artean, erlaxatzeko ere balekoa zaiola aitortu digu.

- Erlaxatu egiten zaitu margotzeak, beraz.

- Bai, sikikoki oso onuragarria da, jende guztientzat gainera. Askotan, barruan sentsazio eta sentimendu asko izaten dituzu akumulatuak eta horiek kanpora ateratzeko era oso ona da margotzea. Koadroen eta koloreen bitartez, pertsona baten izaera eza-gutu dezakezu, barrua hustutzen baita margo bakoitzean.

- Koadroak egitetik bizi izan zara, ez?

- Bai kasualitatez. Telebista saltzaile bati, etxean zintzilikatuak nituen koadroak ikusi eta gustatu egin zitzaizkion. Bere lagun batek, Estatu osoan koadroak katalogoz saltzen zituen enpresa bat zuen. Horrela, ni neu ere hasi nintzen.

- Enkarguz lanean?

- Bai, astean 35 koadro egin behar nituen. Beraiek esaten zidaten bodegoiak, loreak, paisaiak edo beste zer marratzu behar nuen.

- Eta?

- Gustura. Ondo ordaintzen zuten, lana gustatzen zitzaidan eta, gainera, asko soltatu nintzen. Nik neuk ere asko ikasi nuen. Eginaren eginaz ikasten da beti. Halere,



“Gorria ez dut erabiltzen, ezin dut. Hurrengo erronka, arrasti gorri bat margotzea da”

nahiago dut ateratzen zaizkidan koadroak egitea, inork enkargatu eta agindu gabe.

- Arteak ere teknika behar al du?

- Baietz esango nuke. Hasieran norberak barruan zerbait berezia behar du izan baina oso aberasgarria da besteen lanak ikusi eta haien bitartez ikastea. Gero, norberak garatzen du bere estiloa.

- Zein pintore izan nahi zenuke maisutzat?

- Sorolla asko gustatzen zait.

- Oleoa erabiltzen duzu. Imajina ezazu bizitza kolore bakar batez.

- Nire koadrorik gehienak urdin edo grisak izaten dira. Nahiko tristeak, ez dut nahita egiten baina, pertsona gris samarra naiz, antza.

- Erakusketarik egingo al zenuke kalean?

- Bai, zergatik ez? Edozein toki da aproposa koadro bat zintzilikatzeko.

- Artea zer da?

- Pertsona batek zerbait adierazteko duen gaitasuna. Ez da bat ere erraza buruan duzun imajin bat

kanpora ateratzea, bai margoen bidez, bai eskultura, idatziz...

- Zu zeu artista al zara?

- Arraro samarra nai-zela esaten didate. Nik uste dut artistak bereziak direla, sentsibilitate gehiago dute. Gauzarik arruntenarekin gozaten dute, argiarekin, kolore batekin... Edozer gauzak du bere magia, eta artistak hala ikusten du, hala du sentitzen.

- Zuri-beltzeko pelikulei kolorea ematearen alde?

- Ez. Gauza batzuek bere enkantua zuri-beltzean dute. Kolorea ez da bizitzak duen gauza bakarra.

- Erretratuak ere egin izan dituzu.

- Bai baina oso zaila da. Pertsonengan dagoen bizitza isladatzea ez da bat ere erraza.

- Elgoibarko kultur dinamizatzaile izendatuko bazintuzte?

- Gauza asko aldatuko nituzke. Pintura gehiago baloratu beharko litzateke, heziketarekin hasiz eta, lehen esan dudana bezala, edonorentzat zein onuragarria den erakutsiz.

- Eta zure hurrengo erronka?

- Gorria sekula ez dut erabiltzen, ez zait ateratzen. Nire erronka hori da, arrasti gorri bat margotzea.

BARREN

ESKOLAKO UMEKIN EGINDAKO 21. GEHIGARRIA




Argazkian azaltzen diren bezala aurkitu genituen Ikastolako BBB 1eko ikasleak, eskuartean egunkarietako artikulua aztertzen ari zirelarik. Etikako klasea zen eta gaia, Deba Behean alkoholismoa. Antzeko debate batean "BBB Ikastolan" gaia landu zuten. Alde positibo eta negatiboak buruz aritu ziren. Azaldu zigutenez, ateratako konklusioen arabera, neskak faltan egotea eta askatasun gehiago espero zutela izan ziren alde txar edo negatiboak. Positiboak, berriz, beraien eskaera eta kexak entzuten direla bai eta irakaslearen profesionaltasuna ere. Irakasleek oso garbi omen dute ikasleak Ikastolara ikastera doazela eta hori beraienez oso inportantea da gerora begira.

Txiki-tristea

Senar-emazteak lagun batzuekin ari dira semearen etorkizunari buruz hizketan:

- Egia esateko, garbi ez daukagu mutikoak zer egingo duen gero. Zalantzan gaude armadara joango den ala pintore izango den.
- Ba orduan, ikas dezala pistolaz pintatzen!



Jakitunen eskutik

ALERGIAK

Pertsona batzuen (Atopikoak) sistema immunologikoa erantzun exageratua izaten du gehiengoari kalterik egiten ez dioten sustantzien (Alergenoak) aurrean. Atopikoek ez dute antigorputzik sortzen sustantzia hauen aurka.

Antigorputzak sintetizatzen direnean, alergenoen aurrean berriz ere jartzen denean pertsona atopikoa, sintoma alergikoak sortzen dira.

Biztanleriaren artean oso arrunta da alergia, batez ere gazte eta haurren artean.

Alergenorik arruntenak etxeko hauts-akaroak, polena, ondoak eta etxeko animalien ilea eta kaspa izan ohi dira. Alergiak sortzen duen sintomarik hedatuena arnasketan izaten da.

Alergia sortzen dute, baita ere, elikagaiak (esnek, arraultzak, arrainak, fruitu lehorrak, mariskoak), medikamentuak (antibiotiko eta analgesikoak), intsektuen pozoiak (erlea eta liztorra) bai eta zerealen hautsak, egurrak...

Alergia kasuetan sintoma ezberdinak gerta daitezke, besteak beste, begietan (konjuntibitisa), sudurrean (rinitisa) bronkioetan (asma), azalean (urtikaria, ezema), lixeri aparatuan (gastroenteritisa), etab.

Batzuetan, medikamentu, intsektuen pozoia edo elikagaien bidez sortzen diren alergiak larriak izan daitezke eta

bizitza bera ere arriskuan jar daiteke. Kasu hau anafilaxia deitzen da eta berehalako tratamendua eskatzen du.

Patologiarik arruntena rinitisa izaten da, doministikuak, sudurrean hazkura, taponamendua eta destilazio urtsua izaten direlarik. Ondoren asma izaten da gehien eta bularreko ziztukadak, eztl lehorra eta nekea izaten dira.

Alergia sasoi ezberdinetakoa (udaberrian, udaberria-udazkena) edo perennea izan daiteke (urte osoan zehar).

Euskal Herrian alergenorik arruntena hauts-akaroa izan ohi da, umedade handi, tenperatura epel eta toki itxietan egoten dena, batez ere.

Polenak udaberrian alergia kasu asko sortzen ditu, haize handiko egun eguzkitsuetan eta bejetazio asko dagoen lekuetan, batez ere.

Alergia kasuren baten aurrean gaudela uste denean, alergologoarengana joatea komeni da, honek behar bezalako azterketak egin eta gero, neurriak hartzeko.

Bestalde, txertoa da neurririk onena alergiaren sintomak ager ez daitezen. (Erredakzioan itzulia)



OLGA VILLAREAL
ALERGOLOGOA

Zer iritzi daukazu, ama etxean ala kalean lanean?



Bietan, etxean gurekin esateko eta kanpoan diru gehiago irabazteko.

NEREA RODRIGUEZ, 8 urte



Berdin egin dezakete aitak eta amak lan kanpoan. Baina etxean amak bakarrik lan egitea ez da oso ondo, denok egin beharko genuke piskat.

ELISABETH BENITO, 10 urte



Nik nahiago dut nire ama etxean esatea, horrela berak esiten du janaria. Bestela, aitak esiten badu... intoxikatu esiten gara etxeok.


MAIDER REJAS 12 urte



Ardc Mcpl cpq
7 wt vg

Galde-debalde

- 1- Zein hilabete izan nahi zenuke?
- 2- Norekin egingo zenuke ametsetako bidaiak?
- 3- Serbiletarik erabiltzen al duzu jatorduetan?
- 4- Txiklea ala txupatxusa?
- 5- Askotan begiratzen al zara ispiluan?
- 6- Zein ilusio duzu?
- 7- Noren etxea ikusi nahi zenuke?
- 8- Ipar poloari zein zapore emango zenioke?
- 9- Denboran iraganera edo etorkizunera bidaiatuko zenuke?



IM lct Jwct lkuk
15 wt vg

1. Abendua, negua gustatzen zaidalako.
2. Julen Gerrerorekin Bartzelonara.
3. Batzuetan, Errege egunean eta.
4. Txupatxusa, zapore gehiago daudelako.
5. Batzuetan, orrazteko eta polita nagoen ikusteko.
6. Panpinekin jolastea.
7. Rosariorena, bere musika gustatzen zait eta.
8. Marrubi zaporea.
9. Etorkizunera, nire aitona eta amona bisitatzera joateko Fuentes eta Salamancara.

1. Ekaina, oporrak eta uda hasten direlako.
2. Julen Gerrerorekin Caribera.
3. Umetan bai, ez zikintzeko, baina oin ez.
4. Txiklia, gehixo irauten dau eta.
5. Bueno... bai, bastante.
6. Medikuntza egitea.
7. Erregeena.
8. Marrubi zaporea.
9. Etorkizunera, hemendik urte batzuetara non eta nola nagoen ikusteko.

Zer da... *katarroa*?

Ketgp Bcl vct t kae 9 wt vg



Ipurdia elurretan busti eta hozten zarenean hartzen duzun gaixotasuna.

Japevcp Gcra 7 wt vg



Katarroa da eztula eitzen denean, oso gaiztoa da.

Dqt rvc Lqtac 9 wt vg



Gaixotasun bat da eta katarroa duzunean eztulka hasten zara eta sudurretik kandelak botatzen dituzu.

Apvzcp Ardk w ll wt vg



Elurretan ibiltzen zeranean musutik kandela dariola eta eztulka egoten zera.

Alpi ac Dqtcf q 7 wt vg



Gaixotasun bat da, atxis egiten duzu eta eskolara joan gabe, ohean egon behar zara.


Okf cpg Udgtc 9 wt vg



Katarroa eztulka hastea da. Gaixotasun klase horietako bat da.

Denborapasak: ezetz asmatu!

1. Zer.....



2. Zer galdetu diegu beraiek erantzun hau emateko?



JON GARCIA
12 urte

Mutil bati neska bat gustatzen zaionean sentitzen duen erakarpena. Hala ere, maitemintzeko polita izatea bakarrik ez da nahikoa, harreman bat egon eta elkar ezagutu behar da. Edozein adinetan maitemindu zaitezke baina niri oraindik gustatu bakarrik egin zaizkit.

AITOR GONZALEZ
8 urte

Mutil batek neska bat ikusten du eta polita bada, bere atzetik joaten da eta berarekin ezkondu nahi duen galdetzen dio. Maitemintzea polita da neska ere maite zaituenean. 19 urtetik aurrera maitemindu zaitezke, ni ez naiz sekula maitemindu.



3. Asmakizunak:

- Ez du hankarik eta badabil, bidea egiten du gelditu barik. Ez da idia eta adarrak dauzka. Zer da?.....
- Lehorreko txalupak: beti binaka dabilta maiteminduak bezala. Zer da?.....
- Beti atarian deika eta inoiz ez da sartzen. Zer da?.....

4. Sinboloek baliatuz asma itzazu hiru zientzilariren izenak:

■	⊗	⊙	✱	★	♁	●
	A		C		N	I

✱	♁	●	⚡	★	♁
E	D		S	O	

◆	⊗	■	●	✱	⊗	✱
L	U	M			R	

Erantzunak: 1.- Xabi Gomez, 2.- Zer da maitemintzeak?, 3.-Barraskilloa, Zapatak eta Txirrina, 4.- Marconi, Edison eta Lumiere.

Rocio Lorenzo

Masumi's dendakoa



- **Zergatik Masumi's?**
- ▶ Nire seme-alaben izenen hasieren batuketan: Maria, Susana eta Mikel.
- **Modan dagoen hitz bat?**
- ▶ "No me des la chapa", seme-alabek esaten didatena.
- **Zer gogorarazten dizute kanpanadun prakek?**
- ▶ 60ko hamarkada.
- **Jantziko al zenituzke?**
- ▶ Modan egongo balira beharbada bai.
- **Zer itoko zenuke praka estu batzuetan?**
- ▶ Pobrezia.
- **Zapi batez begiak itxi eta 20 bira eman eta gero, non agertu nahi zenuke?** ▶ Elgoibarren.
- **Zein gorputzen gainean ikusi nahi zenuke zure burua?**
- ▶ 20 urterekin nuen gorputzaren gainean.
- **Harreman hotz bat berotzeko bufanda?** ▶ Elkarriketa.
- **Gerrikoa estutu behar den garaietako irtenbidea?**
- ▶ Kapritxoak alde batera uztea.
- **Gorbata eta trajez jantzitakoek konfidantza ematen al dizute?**
- ▶ Ez beti, pertsona ezagutu gabe itxuragatik bakarrik ezin fidatu.
- **Eta hegazkinean joango al zinateke larruzko kazadora eta ileak puntan dituen piloatzaileekin?** ▶ Hegazkinean sekula ez nintzateke joango eta kasu horretan... beharbada ez.
- **Zer da pasioa?**
- ▶ Zerbaitek asko erakartzen zaituenean izaten duzun sentimendua.
- **Beharrezkoa al da irudimena?** ▶ Baietz uste dut.
- **Zein balore berreskuratuko zenuke?**
- ▶ Familia. Aspaldian asko galdu dela uste dut.
- **Eta zein ohitura berri desagertaraziko?** ▶ Gaur egungo gazteek astebukaera guztietan tabernaz taberna ibiltzeko duten ohitura.
- **Soldata balego, etxekoandrea izango al zinateke?** ▶ Ez, nahiago dut kanpoan egitea lan nahiz eta gero etxean beti dagoen zerbait egiteko.
- **15 urte bazenu?**
- ▶ Gaur egungo gazteek egiten duten gauza bera egingo nuke seguruen.
- **Abesti bat?** ▶ 60ko hamarkadako edozein.
- **Usain bat** ▶ Lirio eta Azuzena loreena.
- **Galderaren bat?** ▶ Bat ere ez, ez dut bizitza konplikutzen.

EMAKUMEAREN EGUNA

DOINUA:

Txoriak eta txoriburuak

Martxoaren zortzigarrena da emakumeen eguna mundu guztian ezagutu ta ondo ospatzen deguna emakumeek eskatzen dute gizonen laguntasuna denon artean lortu behar degu guztion berdintasuna

Emakumeak nahi ditugu eskubideak eduki guztia gu ari gara lortzen patxadaz eta poliki emakumeek egiten dugu gauza ugari ederki guztiok berdina nahi degu izan denok baikara gizaki



ITZIAR LEIARISTI

8
E
R
T
2
O
T
A
M

gR **Goki eRreformak, s.l.** DEBA KALEA 12
TEL.: 74 42 23
20870 ELGOIBAR

ERREFORMAK
FATXADAK ETA TEILATUAK
OBRAK OROKORREAN

Baserriko haragietan berezia

Harategi Urdaitegia
San Bartolome, 16. ☎ 74 06 40

Depuradorari buruzko Udalaren alegazioa onartu du Aldundiak

Elgoibarko Udalak Morterika inguruan eraikiko den depuradoraren kokalekuari buruzko alegazioa aurkeztu zuen Aldundian. Udalak 1992ko arau subsidiarioetan onartu zuenaren arabera, errekaaren mozketaren bukaeran kokatu beharko litzateke aipatutako depuradora. Ur Patzuergoaren proposamena, ordea, Geminis-en lurretan eraikitzea zen. Baina eraikina hor eginez gero, errekaaren mozketarekin sortutako lur industrialaren zati bat galdu eta prezioa asko igoko litzateke. Hortaz, depuradora lekuz aldatzeko alegazioa aurkeztu zuen Udalak eta Aldundiak onartu egin du. Hemendik eta 6 hilabetera bitartean depuradorak zenbat metro hartuko dituen zehazteko astia izango du Aldundiak eta ondoren, errekaaren mozketaren eta depuradoraren eraikuntzaren finantziazioa negoziatzeko momentua etorriko da.

Proiektu ezberdinak burutuko dira Urruzuno, Albitxuri eta San Pedron

Joan den astean Iñaki Txueka Aldundiko Nekazaritza saileko alduna Elgoibarren egingo diren hainbat proiektu aztertzen izan zen Elgoibarren Gillermo Garate alkatearekin eta DEBEMENeko teknikariarekin batera. Garate alkateak prentsaurrekoan azaldu zuenez, Urruzunoko baserrietara ura eramateko proiektua aztertu zuen Txueka alduak. Asmoa Kakatzako urtegitik Upaitza gaineko urtegitira ura bonbeatu eta handik Urruzunoko baserrietara eramatea da. Albitxur in Mankomunitateak zaborteia edukitzeko zeukan 10 urteko baimena bukatzeaz dago. Hortaz, bertan parkea egiteaz gain, nekazal industria bezala ustiatu nahi du Udalak. 30.000 metroko azalera hartuko ditu Albitxurik eta une honetan proiektua aztertzen ari dira. Azkenik, San Pedro auzoa bisitatu zuten, bailara osorako ura eramateko proiektua egiteko asmoa dutelarik.

96KO UDAL AURREKONTUAK

1996ko gastua kontrolatzea da Udalaren asmo nagusia

Isaac Loiola, Hazienda Batzordeko presidentek 96rako onartu berri diren aurrekontuen inguruan prentsaurrekoan azaldukoaren arabera, iaz baino %4,95 gutxiago gastatzea espero du Udalak, ia 54 milioi gutxiago. “Bizi dugun errealitateari egokitutako aurrekontuak dira, apalak”. Eskaintzen diren zerbitzuen maila mantentzea oinarri bezala hartuta, zergak biltzeko politika “arrazionala” aipatu zuen. Presio fiskal handia ezartzearen HBren salaketei erantzunez, “zenbait zerga eta prezio publiko ez dira IPCaren gainetik igo, aurretik ezarrita datozenak salbu. Gure inguruko herriekin alderatuz, gure presio fiskala batazbesteko presioaren azpitik dago”. Gainontzeko batzordeetako presidentekin elkarlanean burutu dira aurrekontuak, Loiolaren esanetan, “batzordeburu bakoitzak bere saila gestionatzerako orduan aurrekontuak onartu eta aintzakotzat izango ditu”. Sail bakoitzaren diru partidak berregokitu egin dira, pertsonal gastuak eta seguritate soziala esaterako, sail bakoitzean sartu direlarik. Hortaz, sail batzuetan beherakada eta beste batzuetan igoera handia gertatu da.

Aurtengo aurrekontuen oinarria gastuaren kontrola da, eta ziurrak diren diru sarrerak baino ez dira zenbatu. Hortaz, “litekeena da urte bukaeran uste baino diru gehiago biltzea, ez baitira esaterako, IMH pareko etxeen lizentziak kontuan hartu, ez eta Leku-Ederreko garajeen salmentatik etor litezkeen sarrerak ere, etab.”

“Zergen bidezko sarreretatik 13.815.000 pta. gutxiago batzea espero dugu baina Eusko Jaurlaritza eta Aldundiaren fondoetatik sarrerak handitu egingo dira, 85.214.000 pta.ko igoera espero dugularik”. Aurrekontuak mailegurik eskatu gabe finantzatuko dira.

AURREKONTUEN BILAKAERA

GASTUAK

95: 1.159.452.367

96: 1.105.500.000


Bilakaera: -53.952.367 (-4,65%)

SARRERAK

95: 1.159.452.367

96: 1.105.500.000

Bilakaera: 71.047.633 (+6,4%)



AITOR ZABALA

Udaletxeko gastuak murriztu nahi dituzte Udal arduradunek.

Santi Spiritus eta Arriagako Andra Maria Pietatea eliza

■ Barruko aldetik, sartu eta eskuinera, korora igotzeko eskailera zegoen. Bertan, eliza auzokoek erosi aurretik, ugazaba zenak dolare bat zeukan.

■ Estalki gangatua zuen elizak, horma zarpeatuak eta zurituak zituelarik.

■ Joan Karkizanak bost aldare jarri zizkion baina azken garaietan hiru besterik ez ziren geratzen: San Andres ezker aldean, San Antolin erdian eta Ama Birjina eskuinean. Bakoitzak erretaula bana zuen. Haez gain, absidean Espiritu Santua irudikatzen zuten hiru koadro zeuden. Goian eta erdian, berriz, Kristo gurutziltzatuaren eskultura zegoen.

■ Eliza fundatu zenean Espiritu Santua eta Pietateari eskainitako kultua izan zen garrantzitsuena baina denborarekin San Antolinen kultua gailendu zen, auzoari ere izena emanaz.

■ Fundatzaileak berarentzat eta familiarentzat hilobi bat eraiki

zuen. Ondorengoentzat ere eraiki zituen hilobiak bai eta ospitale, pobre-erromes eta beatentzat ere.

■ 1945. urtean Adelaida Aldasoro Txurruka zen eliza eta bere plaza-ren jabea. Honek, auzoko 24 laguni saldu zien tenplua eta bere ingurua 9.000 pta.tan. Halere, gutxi iraun zuen jabe berrien esku. Izan ere, autopista eta bere sarbideak egiterakoan eliza, ospitala eta plaza desagertu egin ziren. 1972ko urtarrilaren 14an eman zen azken meza eta 1973an bota egin zen.


■ Eliza bota zenetik San Andres eta Kristo gurutziltzatuaren irudiak auzoko baserri bateko ganbaran daude gordeta.

■ Ama Birjinaren irudia (Errosariokoa), aintzinakoa eta balio artistiko historiko haundiena zuena, auzotarrek eliza erosi baino zerbait lehenago saldu zuen ugazabak.

PELLO ARRIETA



Feli Garitagoitia Alvarez (1948-1994)



- 1948ko uztailaren 29an jaio zen.
- Santa Klarako eskolan ikasi zuen lehendabizi eta gero Señorita Anitarenean egin zuen batxilergoa.
- Kultura munduan buru-belarri sartutako emakumea zen. 1967an Hijas de Maria desegin zenean Juventud Elgoibarresa izeneko kultur taldeko arduradunetarikoa bat izan zen.
- Ongarri kultur taldeko batzordeetan lan mordoa egindakoa zen.
- Morkaiko Mendizale Elkarteko idazkaria izan zen 1972-1974an.
- Haizea taldearen bultzatzailea izan zen. Elgoibarko Emakumeen Formazio talde honek antolaturiko ikastaro, hitzaldi eta abarretan gogor egin zuen lan Elgoibarko emakumeen izana goratu nahian.
- 1991n Euskadiko Ezkerrako zinegotzia izan zen Udalean.
- 1994ko urtarrilaren 1ean hil zen.

OIERKI IGONGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segiduan konponduko dizugu igongailua

☎ (943) 11 35 15 ● ☎ ABERIAK (943) 11 35 15

Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

GC

glas control s.l.

Ubitarte 7 - ELGOIBAR

Tel.: 74 30 94 - 74 35 46

HEZETASUNARI
ITOGINEI
FILTRAZIOEI

EZ

**GORENGO
TEKNOLOGIA**

ESTALKIAK, TERRAZAK, HODIAK, SOTOAK,
---Aurrekontuak konpromezurik
gabe---

MOTZAK

Zuhaitz Gurrutxagak Ingalaterran jokatu du

Zuhaitz Gurrutxaga Elgoibarko futbolari gazteak Espainiako selekzioarekin partidu bat jokatu du Ingalaterran. Hilaren 9an izango da Ingalaterrako selekzioaren aurka, Wembley-ko estadiotan, munduko futbol zelairik ezagunenean. Zuhaitz-ek selekzioarekin jokatu duen lehen partidua da. 15 urte besterik ez dituen gazte honek Club Deportiboan jokatzen du eta Errealeko taldeko kide ere izan da.

Pilota Txapelketa

Joan den ostiralean Deba Arroko Eskuzko Pilota Txapelketako lehen partiduak jokatu ziren Ikastolako frontoian. Debako ordezkarien aurkako aurrez aurrekoan, elgoibartarrek kategoria guztietan irabazi zuten. Infaniletan Orbea eta Arrillaga elgoibartarrek 7 puntuko errenta atera zieten debarrei. Karmel Leonek eta Balzolak 22 eta 9 irabazi zuten eta nagusietan Ansolak eta Alzibarrek nagusitasunez irabazi zuten, 22 eta 9. Datorren jardunaldia larunbatekoa, hilak 9, izango da Eibarren eibartarren aurka.

Taekwondo

Ibaiko F. Blanco Simon-ek, Taekwondoko gerriko beltza, 1. dan deritzona, eskuratzeko azterketa gainditu zuen. Bigarren froga gaindituz gero, Elgoibarko lehen gerriko beltza izango litzateke Taekwondoan. Laister, data oraindik zehaztu gabe dagoen arren, Taekwondo kontzentrazioa egingo da Elgoibarren. Xedea, Gipuzkoako selekzioa osatzea.



Felipe Calleja:

“Frantzian korritu nuen Ocañarekin”

■ Zenbat urte Lagun Taldean?

- Sorreratik. 1985ean eskola sortu zen baina aurretik, Artetxen zikloturista taldea zegoen, hortik Lagun Taldea izena. 1985ean lokala eman ziguten eta eskolarekin hasi ginen.


■ **Konponketak ere bertan egiten dituzue?** - Taldekoei hemen egiten dizkiegu bizikletaren konponketak ezertxo ere kobratu gabe, txirrindularitza oso garestia da eta.

■ **Makina bat lan egindakoa izango zara.** - 23 urte daramatzat lanean. Palentziatik Elgoibarrera etorri eta urtebetera hasi nintzen Eibarko txirrindulari talde baten laguntzen, nire iloba baitzegoen han. Eta ordutik ezingo nuke kalkulatu zenbat ordu eman ditudan hemen! Beti borondatezko lanean. Orain presidente nago baina denetik egiten dut. Aipatu behar dut gurasoen laguntza ere badugula.

■ Patrozinatzaileak lortzea?

- Oso zaila da. Udalaren laguntza dugu, bazkideen kuotak, autoetako publizitatea eta errifak ere baina babesleak funtsezkoak dira. Duran-goko Ciclos Iturriagarekin 13 urte daramatzaguz eta orain Iturriagaren iloba den Ciclos Iñigoren babesa dugu.

■ **Afizionatuen taldea sortu da aurretik.** - 18 urtetik aurrera askok uzten



dute txirrindularitza. Oso zaila da adin horretan jarraitzea jubenetatik afizionatuerako jauzia itzela baita. Afizionatuen taldea sortu dugu jendeak jarraipena izan dezan. Elgoibarko 5 daude eta datorren urtean 13 izango dira. Aurrekontua asko igotzen da eta ardurak gehiago dira.

■ **Txirrindulari izandakoa zara...** - Frantzian korritu nuen Stade Montuais taldean. 50 txirrindulari ginen, Luis Ocaña, Manuel Manzano eta ni espainol bakarrak. Haiek profesioletara pasa ziren eta nik bihotzeko sopro bat zela-eta utzi egin behar izan nuen.

■ **Gaztetako idoloak?** - Eddy Merckx, garaikidea dut eta. Lasterketa mordo batean korritu nuen, Darry Gabe, Laburdette, Ocañarekin... askorekin.

■ **Eta gaur egunekoak?** - Indurain eta Olanoz gain, Jalabert asko gustatzen zait. Antonio Martinez istripuan hil zena oso gogoko nuen eta Zarrabeitia bera ere bai, baina ernia diskala eta gero ez dakit nola ibiliko den.

• Adina: 48
• Txirrindularitza kotxetik? Ezberdina baina polita
• Beste kirolik? Denak gustatzen zaizkit
• Vuelta irailean? Beranduegi da, jendea nekatu egi helden da

KEMEN Belardenda

MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA
REFLEXOTERAPIA

San Bartolome 25. Tel: 74 40 31

ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8
behea
83 Postakutxa
Tel. 74 33 44 - 74 06 92
Fax 74 37 11

Biltegia:
Arregitorre, 10 - 14 behe
Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
Gipuzkoa

Sei talde eta hirurogei korrikalari ditu aurten Lagun Taldeak

60 txirrindulariko taldeak osatzen du Elgoibarko Txirrindularien Lagun Taldearen aurtengo plantila. Zapatuan egin zuten Aita Agirre Plazako egoitzan komunikabideen aurreko aurkezpena. Sei ekipo ezberdin daude aurten. Berrikuntza modura afizionatuen kategorian sortu den taldea. Honek Durangoko Ciclos Iturriaga etxearen babesa dauka eta 18 txirrindularik osatzen du. Jubenilen kategorian 14 mutilek korrituko dute Durangoko txirrin du etxearen ize-nean. Bigarren urteko kadeteetan 10 txirrindulariko taldea osatu da

Eibarko Ciclos Inigo patrozinatua eta lehen urteko kadeteen ekipoa 8 kidek osatzen dute eta Pagoaga Iturgintza etxearen babesa jaso dute. Infantilen mailan 10 mutikok Eibarko Ciclos Iturriagaren kamisetarekin korrituko dute eta nesken taldea, Durangoko Ciclos Iturriaga etxearen kamisetarekin, 4k osatzen dute, bat bera ere ez elgoibartarra. Lagun Taldean Elgoibarko 4 neska baino ez dira egon gaur egun arte. Horien artean txapeldunik ere izan zen. Elisa Ramirez, duela hiru urte txirrindularitza utzita dagoena, Espainiako txapeldun izan zen kadeteetan eta txirrindularitza Mundiale-tan ere parte hartu zuen. Espainiako Txapelketa batean izan zuen erorketa baten ondorioz mokorra hautsi eta gero hartu zuen txirrindularitza lagatzeko erabakia.

Aurkezpenarekin batera lehendabiziko lasterketak korritu zituzten asteburuan kadeteek. Igandean jubenilen eta afizionatuen txanda izango da.



Goitik behera, 1. urteko kadeteak, afizionatuak, infantilak eta 2. urteko kadeteak eta jubenilak.

KIROL

EMAITZAK

Futbola

- Elgoibar 2 - Hondarribi 3 (Neskak)
- Elgoibar 1 - Trintxerpe 5 (1. erreg.)
- Elgoibar 1 - Antiguoko 5 (Infantilak)
- Elgoibar 1 - Lehenengokoak 5 (Kadeteak)

Eskubaloia

- Elgoibar 20 - Tolosa 17 (Kad. mutilak)
- Elgoibar 19 - Bergara 18 (Jub. mutilak)
- Mollarri 6 - Elgoibar 14 (Kad. neskak)
- Elgoibar 30 - Tiñelu 10 (Seniorrak)

Areto futbola

- Inter-Pub Squall 4 - Elgoibar 2 (2. maila)

AGENDA

Futbola, Mintxetan

- Larunbata, 9
- 10,00 Gazteak - Koxkas (Jubenilak)
- 12,00 S.D. Eibar - Urola (Kadeteak)
- 13,45 Eibartarrak - Boscozaleak (Jubenilak)
- 16,30 Elgoibar - Bergara (Jubenilak)
- Igandea, 10
- 10,00 Urki - Antzuola (2. erreg.)
- 12,00 S.D. Eibar - Zumaiaiko (1. erreg.)

Eskubaloia, Kiroldegian

- Larunbata, 9
- 16,00 Elgoibar - Bergara (Kad. mutilak)
- 17,30 Elgoibar - Urnieta (Kad. neskak)

Futbitoa, Urasandin

- Igandea, 10
- Arbitraia: Karkis
- 9,00 Lucky Luke - Ikus Optika
- Roke - S. Karapola
- 10,00 Pedruskos - Ametsa
- S. Braga - Berrogei Duro

Saskibaloia, Kiroldegian

- Larunbata, 9
- 19,00 Txankakua S.T. - Errenteria


Elgoibarko Eskubaloi Taldeko senior muti- len taldeak lehen erregionalerara igotzea lortu du. Hamalau elgoibartarrek osatutako ekipo honen bigarren urtea da honakoa. Iaz ez zuten igotzeko aukerarik izan, baina lehenengo urtea izanik, zortzigarren postuan geratu ziren.

Urrian hasi zen liga amaitzeko, partidu bakarra falta zaie seniorrei. Asteburuan Errenderikoen aurka jokatu dute baina partidua ez da erabakiorra izango dagoeneko mailaz igo baitute. Une honetan bigarren doaz sailkapenean elgoibartarrak eta lehen bi postuetako talde-

ak igotzen dira kategoriaz. Hortaz, asteburuko norgehiagokan irabaziz gero lehendabizi doazen hondarribitarrei hegemonia ostuko liekete.

Bigarren mailatik lehenengora

Bigarren erregionalean bi urtez jokatu dute elgoibartarrek. Igoerari esker, lehen erregionalean arituko dira aurrerantzean. Patxi Aranbarri taldekidearen ustez, kategoria batek bestera alde dagoen arren, "datorren denboraldian ondo ibiltzea espero dugu, sailkapeneko erdi aldean edo". Liga amaitzeko partidu bakarraren faltan, jokatu dituzten 21




Seniorrak. Argazkian zenbait kide falta dira.

partiduetatik, 16 irabazi egin dituzte; berdindutakoak 4 izan dira eta bakarra galdu dute.

Seniorren taldeko entrenatzailea Igor Lizarralde da eta taldekideak honako hauek: Eduardo Fidalgo, Oier Gurrutxaga,

Migel Angel Aroza, Jon Zubiaurre, Iñigo Astigarraga, Zigor Esnaola, Gorka Iriondo, Gorka Muruamendiaraz, Oscar Uria, Juan Mari León, Iñigo Arriola, Luis Alberto Bellota, Josu Juaristi eta Patxi Aranbarri.



OSASUNDEGIA

*Urkizu Pasealekua, 11.
(Orbeako Dorrea Lehenengo solairua).
Tfnoak: (943) 12 02 00 - 12 02 04*

1- Alergologia

2- Kardiologia

3- Zirurgia

4- Dermatologia

5- Dietetika eta Nutrizioa

6- Laborategia

7- Barne medizina

8- Ortodontzia

9- Foniatria medikoa

10- Pediatria

11- Sikiatria

12- Radiologia

13- Traumatologia

14- Urologia

Kilometroen eta 650. urteurreneko kultur egitaraua aurkeztu zuten astelehenean

Elgoibarko sorreraren 650. urteurreneko eta Kilometroak jaiaren ospakizuneko kultur egitarauaren aurkezpena egin zuten astelehenean Gilermo Garate alkateak, Ana Santolaia Kultur Zinegotziak eta Kilometroen arduraduna den Marijose Ulaziak. Urte osoan zehar antolatuko diren ekintza ezberdinen berri eman zuten. Santolaiaren hitzetan, "egoera ekonomikoa nahi baino larriagoa den arren, elgoibartarrentzat eta bisitatuko gaituzten guztientzat egitarau erakargarria antolatzen saiatu gara"



Kilometroak eta Elgoibarko herriaren 650. urteurrena batera ospatuko dira urte osoan zehar lekuan lekuko ekintzekin. Aipatzeko moduko erakusketak eta jaiak asko dira, era guztietarako gustuentzako eginak. Marijose Ulaziak adierazi zuenez, "ezin daiteke kalkulatu antolakuntzan zenbat jende arituko den baina ziurra da asko eta asko direla". Astelehenean aurkeztutako egitaraua irekia da eta iragarritako ekitaldiez gain, beste batzuk ere antola daitezke.



Goian "Sorotan Bele"ren izen kontzertua irailean. San Juan bezperan soka-dantza egingo da Plazan suaren inguruan.

650. urteurrena

- Apirilean: **Alberto Schommer** argazkilariaren erakusketa.
- Maiatzaren 22 eta 23an: **Euskal Bizikleta**.
- Uztailan: **Nazioarteko Folklore jaialdia**
- Kokoe elkarteak Koldo Lizarralde etnografoaren laguntzaz egindako **komiki liburuaren argitalpena**.
- Abuztuan: **Gabriele Basilicoren erakusketa**.
- Urriaren 10etik 31era: Kokoren **komiki erotiko erakusketa**.
- Azaroan eta abenduan: Elgoibarki buruzko tradizioei buruzko **hitzaldiak**.
- Abenduaren 20an: Elgoibarko **Herri Eskutitzaren Aldarrikapeneko 650. urteurrena** eta Elgoibarko herriaren historiari buruzko bigarren **liburuaren argitalpena**.

Kilometroak

- Martxoaren 21ean: **Goenkalekoekin hizketaldia** Ikastolako entzat.
- Maiatzan: **kafe antzerkia** herriko tabernetan.
- **Herri kirolen jaialdia** eta Kandido Txurrukari omenaldia
- Ekainean: **Banden alardea**.
- San Juan bezperan: **dantzari eta txistulariekin jaialdia** San Juan suaren inguruan eta soka-dantza.
- Ekainaren 30ean: **Hankapalu eguna**.
- Irailaren 12an: **Sorotan Bele** taldearen kontzertua. Ikastolari buruzko **erakusketa, haurrentzako jaialdia eta euskal umoreari buruzko solasaldia**.
- Urriaren 6an, **Kilometroak**.

8 OSTIRALA

19,00 MARGO ERAKUSKETA

Egilea: Gemma Monreal

✓ Kultur Etxean

Hilaren 24ra arte

22,30 ANTZERKIA

Taldea: Tanttaka

Antzezlan: "Denak errudun"

✓ Herriko Antzokian

Sarrera: 500 pta.

9 LARUNBATA

12,00 JAIETAKO EGITARAU ANTOLATZEKO BILERA

✓ Kultur Etxean

16,00 LARUNBATERO

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Atxutxiamai

Begirale Taldea

19,30-22,15 ZINEA

"Seven"

10 IGANDEA

7,30 MENDI TRABESIA

✓ Irteera Plaza Handitik

Antolatzailea: Morkaiko M.E.

12,30 BANDAREN KONTZERTUA

✓ Herriko Antzokian

16,30 ZINEA

"Mortal Kombat"

19,30-22,15 ZINEA

"Seven"

11 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

"Seven"

12 ASTEARTEA

22,00 ZINEA

"Seven"

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
9, larunbata:	Bidasolo	Bidasolo
10, igandea:	Bidasolo	Bidasolo
11, astelehena:	Yudego	Zabaleta
12, asteartea:	Yudego	Zabaleta
13, asteazkena:	Yudego	Zabaleta
14, osteguna:	Yudego	Zabaleta
15, ostirala:	Ormazabal	Escala

OKINDEGIA:

10, igandea: FOTERO

15 OSTIRALA

18,30 ODOL ATERALDIA

✓ P.M. Urruzuno 8an

22,15 ZINEA

"Felpudo maldito"

Eibarko XIX. Antzerki Jardunaldiak

Larunbata, 9 (Ordua: 20,30)

"El día de la gloria" Gurpo de Teatro y Estudio Luis Vives.

Igandea, 10 (Ordua: 20,00/22,00)

"Sin ti" Bederen bat

Zu(t)gabe Bederen bat

Astelehena, 11 (Ordua: 20,00/22,00)

"Uno nunca sabe" Angel de Andrés eta Iñaki Miramon

Asteartea, 12 (Ordua: 20,30)

"Dos tristes tigres" Teatro Fronterizo y Festino Baroco

Asteazkena, 13 (Ordua: 20,30)

"Umekeriak" Tanttaka

Osteguna, 14 (Ordua: 17,30 eta 21,00)

Zinea: Pura formalidad

* Emankizun guztiak Eibarko Unibertitate Laboralean izango dira.

Zinea

Seven

Zuzendaria: David Fincher
Antzezleak: Brad Pitt, Morgan Freeman, Gwyneth Paltrow, R. Lee Ermey.

Thriller urbanoen generoko pelikula da. Bi poliziren arteko harremana kontatzen du. Polizia beterano batek, laster lanbidea uztekotan dagoena, bere

ordezko polizia gazte eta harropuz batekin lan egin beharko du. Zazpi pekatu kapitalak jarraituz zazpi pertsona hiltzeko asmoa duen psikopata bat atxilotu beharko dute biek. Gwyneth Paltrow-ek, pantailatik kanpo Brad Pitt-en emaztegia denak, emaztearena egiten du pelikulan.

Mortal Kombat

Zuzendaria: Paul Anderson
Antzezleak: Linden Ashby, Cary-Hiroyuki Tagawa, Robin Shou.

Shang Tsung azti maltzuraren indar ezkutuak printzipe gaizto bati bere etsaien aurkako borroka irabazten lagunduko dio. Mortal Kombat izeneko 10. torneo irabazten badu, kanpoko munduan nagusi diren hondamena eta gaizkia nagusituko dira leku guztietan. Hiru borrokalarik, pertsona gaizto horien arima bereganatu eta etsai ez gizatiarrak deusezteko indarra lortu beharko dute.




D E N A K

E R R U D U N

Antzerkia

Gaur, ostirala, hilak 8
EMAKUME LANGILEAREN EGUNA

Herriko Antzokian, gaueko 22,30etan



Denak errudun

Tanttaka Antzerki Taldea

SARRERA: 500 pta. Gazte Txartelarekin: 300 pta.



ANTOLATZAILEA: ELGOIBARKO UDALA

LAGUNTZAILEA: EUSKO JAURLARITZAKO ANTZERKI SAREA



Garajeak

Garaje ERDI-ITXI bat saltzen dut pista beltzean.
☎ 74 00 39

Garaje ITXI bat saltzen da Arregitorren.
☎ 74 30 81

LOKAL BAT alokatzen dut Madalan, almazenerako aproposa.
☎ 74 13 84

Garaje ITXI BAT alokatzen dut pista beltzean.
☎ 74 20 09 (gauzez)

Garaje ITXI BAT salgai Santa Ana 46an.
☎ 58 40 24

Garaje bat ALOKATZEN dut pista beltz azpian. Marraduna eta kotxea garbitzeko aukera.
☎ 74 01 77

Etxebizitzak

Pisu bat saltzen dut Deban. Amueblatua. Prezio onean.
☎ 74 22 83 Kontxi

Bi irakasle gara eta pisu bat alokatu nahi dugu.
☎ 10 85 44 Patxi (goizez 9-13)

Elgoibarren edo inguruan PISU BAT ALOKATU edo konpartituko nuke. Iosune.
☎ 74 41 32 (egunez)
☎ 59 21 36 (8etatik aurrera)

Etxe bat salgai MENDARON. Amueblatuta.
☎ 75 62 62 (gauzez 9-11)

ALTZOLAN BUHARDILA BAT alokatzen dut. Hornituta eta baldintza onean.
☎ 74 37 41

Salerosketak

LOGELA BAT saltzen dut. Bi ohe 1,20koak, armarioa eta mesilak. Egoera onean.
☎ 74 21 43 Kontxi

ESKIAK (1,85) eta eskiatzeko BOTAK (42) salgai. Egoera onean.
☎ 74 18 55 (gauzez)

Ford Escort XR3, 16 v, SS AN kotxea saltzen dut.
☎ 74 34 63 Xabi (gauzez)

Errepideko bizikleta salgai. CONTINI markakoa. Shimano 105 STI Mavic. 100.000 pta. Oso ondo dago.
☎ 74 26 49

ERREPIDEKO BIZIKLETA salgai. Egoera oso onean eta prezio interesgarria.
☎ 74 28 56

Bestelakoak

Betaurrekoak galdu nituen otsailaren 29an, osteguna. San Bartolome eta Arrillaga kaleen artean. Funda gris batean.
☎ 74 13 14

IKASLE IPAR AMERIKARRAK HARTZEKO prest dauden familiekin harremanetan jarri nahi dugu, uda edo urtebete igarotzeko.
☎ 74 15 14 Maite

WELCOME ingeles ikastaroak, BBB eta UBI EEBBetan eta Ingalaterran. Au-pair EEBBetan.
☎ 74 15 14 Maite

Agurrak

Zorionak martxoaren 13an 11 urte betetzen dituen Unairi 5. mailako adiskideen partez.

Zorionak eta mila musu osaba Benitori eta Anderri Judithen partez. Baita ere Amaia Oterori, bere laguneren partez.

Zorionak gure etxeko langileenari. Musu handi bat. Zure egunean ondo pasa dezazula. Eire eta Sindoren partez.

Zorionak abenduko ingeles azterketak gainditu zenituztelako. Onenak zarete. Musu mordo bat. Nekane.

Lana

GARBIKETA lanak egiten ditut, orokorrak, leihoak eta obra bukaerako garbiketak.
☎ 74 39 63 Alicia

ETXEKO LANAK egiteko prest nago.
☎ 74 34 06

Partikularrak

Frantseseko klaseak ematen ditut. Baita itzulpenak egin ere ahoz eta idatziz.
☎ 74 04 59 Jacqueline
74 44 51 (gauzez)

MARRAZKETA LINEAL ETA DIEDRIKOKO klaseak ematen ditut.
☎ 74 43 98 / 74 34 01 Iñaki

Injinerutza eta magisteritza tituludunak KLASE PARTIKULARRAK ematen ditu.
☎ 74 01 48 Alazne

PREMAZKO TELEFONOAK



OSASUNA

Anbulategia:
Larrialdiak.....461111
Txanda hartzeko.....743354
Planning-a742950
Alkoholiko Anonimoak..740385
D.Y.A (anbulantzia) ..464622
Gurutze Gorria.....743864
Mendaroko Ospitalea756264
Drogomenpekotasun Z. 741008
Odol Emaileak743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442
PESA (Eibar).....102131
Taxi geltokia.....740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366
Kirol Zerbitzua744415
Kultura Zerbitzua742158
Mendaroko Udala756100
Ongizate zerbitzua...743736
Udaletxea741050
Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142
Elgoibarko Izarra.....741626
IMI.....741196
Kontsumo Bulegoa ...743088
Liburutegia743525
Musika Eskola742145
Mintxeta744315
Parrokia.....740842
Polikiroldegia741361
Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296
Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola.....74
Herri Eskola74 08 79
I.M.H.74 41 32
Institutua74 02 67
Ikastola74 44 41
L.H.I.....74 44 80
Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12
El Diario Vasco74 40 73
El Mundo74 27 59
El Correo Español...74 10 82
Egin.....10 84 21
Zazpiki irratia74 34 74

Gorbea jatetxea

Santa Ana, 10
Tel. 74 05 80
ELGOIBAR



*Hilaren 15ean,
ostirala, arratsaldeko
7etatik 9etara
inaugurazioa*

*Etorri eta
dastatu gure
berezitasunak
menuak eta karta*



PAGOAGA S.A. Iturgintza

- ITURGINTZA ETA BEROGAILUAK
- IGELTSERITZA LANAK OROKORREAN




**GAS INSTALATZAILEA,
IG4 baimenarekin.
GAS NATURALA ETA PROPANOA**

☎ 74 02 79 - 74 05 12

San Antolin Kalea, 13 - ELGOIBAR

MARTXOAN MINTXETA BERRIZ MARTXAN!



MUSKULAZIO GELA
MANTENIMENDU GIMNASIA
FUTBOL ZELAIEN ALOGERAK
TENIS PISTA
PING-PONG

☎ 74 43 15 / 74 44 15



ELGOIBARKO UDAL
KIRO
PATRONATUA